



Ambito de la
Administración Local

Arruazuko Udala

2002ko Ekitaldia



2003ko abendua



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
COMPTOS
GANBERA

Aurkibidea

	<u>ORRIA</u>
I. SARRERA.....	3
II. HELBURUA.....	4
III. NORAINOKOA ETA MUGAK.....	5
III.1. Norainokoa.....	5
III.2. Mugak.....	6
IV. IRITZIA ETA ONDORIOAK.....	7
IV.1. Iritzia.....	7
IV.1.1. Aurrekontu kitapena.....	7
IV.1.2. Ondare egoera	7
IV.1.3. Legezketasuna.....	7
IV.1.4. 2002ko abenduaren 31ko finantza egoera.....	7
IV.2. Ondorioak.....	8
IV.2.1. Udaleko ekonomia aholkulariaren jardueraz.....	8
IV.2.2. Ondorio orokorra.....	9
V. 2002KO AURREKONTU KITAPENA.....	11
 ERANSKINA: EKONOMIA AHOULKULARIAREKIN EGINIKO ERAGIKETEN LABURPENA.....	 13

I. Sarrera

2003ko ekainean Uharte Arakilgo alkate ohiak idazki-salaketa bat aurkeztu zuen Comptos Ganberan. Bertan Udaleko ekonomia aholkulariak ustez eginiko legez kontrako jarduerak salatzen zituen: txeken sinadurak faltsutu izana. Gertaturikoa, aurretik, guardiako epaitegiaren aurrean salatua zuen. Ondoren, Arruazuko Udala ere akusazio partikular gisa aurkeztu zen salaketa berean, bertako udal kudeaketan antzeko jarduerak antzeman zituelako.

Salatutakoa kontuan hartuz, eta aholkularia zonako beste toki erakundetan lanean aritua zenez, Comptos Ganberako presidentek aholkularia kontratatua zuten udal guztien fiskalizazioa aurtengo lan programan sartzea erabaki zuen, uztailaren 1eko erabakiaren bidez. Nafarroako Parlamentuak lan programaren aldaketaren berri jaso zuen.

Arruazuko Udalak 103 biztanle ditu 2002ko erroldaren arabera. Ez du erakunde autonomikorik, ezta enpresa publikorik ere, eta ondorengo mankomunitate edo elkarteetan dago sarturik:

- Sakanako Mankomunitatea
- Gizarte zerbitzuen Mankomunitatea
- Aralarren Batasuna Elkarte Tradizionala

2002ko datu nagusiak hauexek ditu:

	Gastuen aurrek. kitapena (eurotan)	Dirusarr. aurrek. kitapena	Langileria 2002-12-31
Udala	48.690,5894	86.540,17	1 (*)

(*) Idazkari-kontu hartzailea, bitarteko izaeraduna. Arruazun ez ezik, Uharte-Arakil eta Irañetan ere aritzen da.

II. Helburua

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen, Nafarroako Toki Ogasunen martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen eta Comptos Ganberaren abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Arruazuko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 2000ko gastu eta dirusarreraren aurrekontu kitapenaren fiskalizazioa egin da.

Toki erakundeei dagokien araubidea aipaturiko legeek finkatzen dute, eta baita apirilaren 2ko 7/85 legeak (Toki sektorearen oinarriak finkatzen dituena); Nafarroako Administrazio Publikoetako langileriaren estatu-tuak, administrazio kontratazioaren legeak eta, oro har, Nafarroako toki erakundeei aplikatzen ahal zaion legedia.

Kontu eta aurrekontuetan arau nagusiak 270, 271 eta 273 foru aginduak dira, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak. Bertan Nafarroako Toki Administrazioaren aurrekontu eta gastu publikoa, aurrekontu sistema eta kontabilitatea arautzen dira.

Txostenaren helburua bikoitza da:

A) Fiskalizazio guztien helburua, hots, ondorengo gaiei buruzko iritzia ematea:

- Udalaren 2002ko ekitaldiko aurrekontu kitapena aztertzea
- 2002ko ondare egoera, ohiko kontabilitate-irizpideen arabera.
- Udalaren finantza eta ekonomia jarduera legedia errespetatuz egiten ote den.
- Udalaren finantza-egoera 2002ko abenduaren 31n.

B) Lan honen helburu berezia: auditoretzako prozedura eta froga sakonagoak egin dira ondorengo aztertzeko:

- Ordainketa eta kobrantzak benetakoak direla, behar bezala baimendu eta kontabilitatuta daudela. Halaber, ordainketak jasotako horniketa edo eginiko zerbitzuei lotuta daudela, eta kobrantzek Udalak jasotako dirutzarekin bat egiten dutela.
- 2002ko abenduaren 31ko zordun eta hartzekodunen zerrendak Udalak egin beharreko ordainketa eta kobratu beharrekoarekin bat ote datozen.
- 2002ko abenduaren 31ko banku-saldoek Udalaren finantza-errekurtsoak ongi islatzen ote dituzten.

Txostenaren ondorioak 2002ko ekitaldiraino heldu dira, lanean hasi ginenean 2003ko lehen sei hilabeteetako eragiketak erregistratu gabe zeudelako. Dena den, ekainaren 30ra arte ere luzatu dira txostenak azterturiko gai batzuk.

III. Norainokoa eta mugak

III.1. Norainokoa

Arruazu herri txikia da eta bertako Udaletxean lagun bakar bat ari da lanean, kudeaketa lanak eginez eta, aldi berean, publikoaren atentzio lanetan: idazkaria. Haren hezkuntza juridikoa da eta Arruazun ez ezik, Uharte Arakil eta Irañetan ere aritzen da. Hau dena kontuan hartuz, ez da harrizkekoa beste lan batzuk –kontuen kudeaketa eta ekonomia aholkularitza- beste baten esku uztea. Hau horrela egiteak, ordea, lan horien gaineko kontrola eskatzen du, Udalak berak egin beharreko kontrola, alegia.

1997tik Arruazuko Udalak kanpoko profesional baten esku utzi ditu kontuen kudeaketa eta ekonomia aholkularitza. Kontratazioa onartu zuen osoko bilkuraren aktarik ez dago, eta kontratazioaren baldintzak ere ez daude inon finkaturik.

Salaketa eragin zuen gertaera ezaguturik, Udaleko aholkulariak erregistro eta kontu lanei utzi zizkien. Horren ondorioz, 2002ko eta 2003ko lehen sei hilabeteetako kontabilizazio lanak atzeratu egin ziren. 2003ko udan Arruazuko Udalak beste aholkulari bat kontratatzea erabaki zuen egoerari aurre egiteko.

Kontabilizazioa egiteko, Arruazuko Udalak Nafarroako Toki Administrazio Departamentuak onarturiko kontabilitate bakuna erabiltzen du.

2002ko ekitaldian Udalak behin behineko aurrekontu betetzearen egoera besterik ez du onartu.

Lana burutzeko Estatuko Kanpo kontrolerako erakundeen koordinazio batzordeak onaturiko fiskalizazio irizpide eta arauak erabili dira, eta zirkunstantzien arabera egokitzat jo diren frogak ere egin dira. Txostenaren helburuak kontuan hartuz, honakoak dira bereziki landutako gaiak:

- Udalaren barne kontrolaren azterketa, batez ere diruzaintzako eta kontabilitate arloetan: eragiketen isla -baimena eta frogagiria-, ko-brantzak, ordainketak eta txeken emisio eta kontrola.

- Besteekiko eragiketen azterketa: Nafarroako Gobernua, Gizarte Segurantza, hornitzaileak, zordunak eta banketxeak.

- Aholkulariak eginiko fakturen eta haren lanen jarraipena.

- Polizia judizialak emandako agiriak.

Gu lanean aritu garen bitartean, epaitegietan ikerketa penala burutzen ari da salaturiko gertaerak argitzeko.

III.2. Mugak

Gure lana mugatu duten kontuak honakoak dira:

- Udal kontabilitatearen egoera txarra, batez ere 2002ko kontuen erregistro eta itxiera, eta 2003ko lehen sei hilabeteetako eragiketen erregistroa.
- Barne kontrolik eza, batez ere diruzaintza, hartzekodun eta zordunen saldoen gaineko kontrol, jarraipena eta berdinkatzea.
- Ekonomia aholkulariak egin beharreko lana zehaztu gabe dago. Gainera, zenbait kasutan gastuaren justifikaziorik ez dago. Hori dela eta, lanaren benetako kostua zehazterik ez dago eta ezin da jakin eginiko lana jasotako diruari dagokion ala ez.

Aipaturiko mugak garrantzitsuak dira eta, beraz, argi dago horiek guztiek Comptos Ganberaren lana baldintzatu dutela.

Zelaiko lana uztailetik irailera bitartean egin da. Lanaren arduradunak auditore bat eta auditoretzako tekniko bat izan dira. Comptos Ganberaren administrazio, informatika eta zuzenbide zerbitzuek ere beraien kolaborazioa eskaini dute.

Udaleko langileei, kontu sistema kudeatzen duen enpresa informatikoari eta polizia judizialari eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

IV. Iritzia eta ondorioak

IV.I. Iritzia

Norainokoa eta aipaturiko mugak kontuan hartuz, Arruazuko 2002ko aurrekontu kitapena aztertu dugu. Azterketaren ondorioz, hona hemen gure iritzia:

IV.I.1. Aurrekontu kitapena

Aurrekontu egozpen akatsdunak antzeman ditugu. Bestalde, eragiketa batzuk ez dira kontabilizatu eta beste batzuk ez daude justifikaturik. Erregistroen arteko koherentzia falta eta akats aritmetikoak ere antzeman ditugu.

Gure iritziz, III.2 atalean zehatutako mugak eta aurreko pasarteetan aipatu ditugun akatsen ondorioz, 2002ko aurrekontu kitapenak ez ditu islatzen Udalak fiskalizaturiko ekitaldian egin dituen eragiketak.

IV.I.2. Ondare egoera

Ezin dugu iritzirik eman Arruazuko Udalak 2002ko abenduaren 31n zuen ondare egoeraz, honako arrazoiengatik: ez dago ondarea islatzen duen konturik (egoera balantzea, bereziki); ez dago udal ondasun errendaririk; diruzaintzako saldoetan eta zordun eta hartzekodunen saldoetan ez dago kontrolik eta ezta berdinkatze prozesurik ere.

IV.I.3. Legezketasuna

2002ko udal kudeaketan kontuen eta aurrekontuen legedian eta diruzaintzaren kudeaketan arau-hauste aunitz antzeman ditugu, aurreko atalean zehaztu dugun bezala. Halaber, zerbitzuen kontratazioan kontratu falta ikusi dugu. BEZ eta PFEZ-ren gaineko araudia ere ez da betetzen, eta Udalaren txeketan ustezko sinadura faltsuak ere aurkitu ditugu.

IV.I.4. 2002ko abenduaren 31ko finantza egoera

Aurreko arazoak direla eta, Comptos Ganberak ezin du finantza-egoerari buruzko iritzirik ema. Nolanahi ere, honakoa aipatu nahi dugu:

- Kontuen arabera, 2002ko abenduaren 31n Udalak ez zuen zorrik. Dena den, bankuetxe batek emaniko informazioaren arabera, Udalak kreditu bat zuen, 2002ko abenduaren 31n 13.522,7 euroko saldoa zuena. Kontabilitateak ez du deus jasotzen, ez zenbatekoa eta ezta interesengatikoa gastuak eta ekitaldiko amortizazioa ere.
- Halaber, Udalak epe finkorako 78.131,57 euroko ezarpen bat du banketxe batean. Ezarpen hori ere ez dago erregistraturik Udalaren kontabilitatean.

IV.2. Ondorioak

IV.2.1. Udaleko ekonomia aholkulariaren jardueraz

Ekonomia aholkulariaren kontratazioa osoko bilkurak egin zuen 1997ko lehen hilabeteetan. Ez dago kontratazio aktarik eta Udalaren eta aholkulariaren arteko harremanak finkatzen dituen agiririk ere ez da egin.

Ordaintzeko modua banku-helbideratzea izan zen 2001era arte; harrez geroztik, txekea erabiliz egiten zen. 2001etik 2003ko ikainaren 30 arte dauden agiriak aztertuta (horren xehetasunak txostenak dakarren eranskinean ikus daitezke), eta III.2 atalean aipaturiko mugak kontuan hartuz, honakoa nabarmendu nahi dugu:

- Ekonomia aholkulariaren ordainsariak eta haren jarduera baldintzak ez daude zehazturik Udalak egin zion kontratuan.
- Aholkulariak fakturatutako ordainsarien gaineko kontrol eta jarraipenik ez dago, ez diru kopuruari dagokionez, eta ezta ordainketari berari dagokionez ere. Bestalde, aholkulariaren fakturek ez dute BEZaren araudi fiskala betetzen eta ez zaie PFEZek aginduriko kenketa egiten.
- Udalak gastutzat kontabilizatutako zenbatekoek 3.500,2 euro egiten dute. Aholkulariak kobratutako dirutza, berriz, 5.130,51 eurokoa da. Esan bezala, ordainketa horietan ez da PFEZk aginduriko kenketa egin. Kobratutako dirutzaren zati nagusia (4.078,76 euro) ez dago agiri bidez justifikaturik.
- 13 txeketan -2 izendunak eta 11 eramailearen txekeak- alkatearen eta idazkariaren ustezko sinadura faltsuak aurkitu ditugu. Txeke hauek aholkulariak berak kobratu zituen eta kontuen arabera haren ordainsarien zenbatekoarekin bat egin lezakete.
- Txekeak udal idazkariak egiten ditu. Aipaturiko txekeak taloitegitik lapurtu zituzten idazkariak deus jakin gabe. Udaleko iturriek diotenez, idazkaria oporretan zegoen garaian edo lan egiten ez zuenean kobratu ziren.
- Ez dakigu aholkulariak azterturiko epean jasotako dirutza kobratu beharrekoa ote den, ondorengo arrazoiengatik:
 - a) Ordainsari eta jarduera baldintzarik ez dago.
 - b) Aholkularia lanean aritu den orduen gaineko kontrol edo erregistrorik ez dago.
 - d) Fakturek zenbateko osoa aurkezten dute, fakturatutako orduak eta ordu bakoitzaren zenbatekoa zehaztu gabe.
 - e) Ordainketa batzutan ez dago justifikazio agiririk edo fakturarik. Bestalde, hilabete batzutan fakturarik aurkezten ez den bitartean, beste

batzutan denbora-erreferentziarik gabeko zenbatekoak bitan fakturatu dira.

Txostenaren eranskinak hau guztiaren gaineko azalpena dakar. Horren konklusioa hau da: 1.179,25 euroko ordainketak justifikatu gabe daude.

Azkenik, aipatzekoa da Udalak ez dituela txekeak egin dezaketen udal agintarien sinadurak gaurkotu eta banketxeetan ere ez dute txeken kontrola behar bezala egin.

IV.2.2. Ondorio orokorra

Aurreko pasarteetan aipaturikoa kontuan hartuz, Comptos Ganberak uste du udal agintariak, ahalik eta azkarren, erabaki batzuk hartu behar dituztela ondorengo arazoak gainditzeko:

- Kontabilitatea eguneratzea. Horretarako egin beharreko erregularizazio eta egokitze idazpenak egin behar dira. Banku-saldoen fidagarritasuna ere aztertu behar da, eta baita zordunen eta jartzekodunenak ere. Comptos Ganberak eginiko azterketaren ondorioz bildu dituen datuak Udalaren esku jarri ditu.

- 2002ko kontu orokorra onartzea

- Barne kontrola-Kontu hartzailetzaren sistema martxan jartzea, Udalaren beraren ezaugarriak eta araudiaren eskakizunak kontuan hartuz. Horren helburua da kontu eta aurrekontuaren kudeaketa eta Udalaren bitartekoak behar bezala kontrolatzea.

- Ondorio ekonomikoa duten eragiketa guztiak behar bezala baimenduta, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela bermatzea. Alde horretatik, faktura guztiek dagozkion udal zerbitzuaren oneritzia behar dute. Ordainketak eta urte amaieran ordaintzeke daude zenbatekoen gaineko kontrol egokia ere behar da.

- Zerga errolden dirusarreraren kudeaketan eta ur eta elektrizitatearen hornikuntzan, ordainketak baimendu egin behar dira; ordaindu beharrekoaren eta kontabilitatean dagoenaren arteko berdinkatzea ere egin behar da, kobratutako zenbatekoak baieztatu, itzulitako ordain-agiriak kontabilizatu eta abenduaren 31n kobratzeke dauden saldoen zerrenda izenduna egin behar da.

- Kanpoan kontrataturiko zerbitzuen gaineko kontrol egokiak behar dira, beraien kalitatea ziurtatzeko. Kontrataturiko lanak ongi zehazteaz gain, ordainsariak ere finkatu behar dira eta baita eginiko lanaren gaineko jarraipen eta kontrola ere.

- Udalak banketxeen bidez egiten dituen ordanketeei dagokienez, udal arduradunen sinadurak gaurkotu egin behar dira eta bat baino gehiagoren sinadura eskatu behar da txeke bidez kobratu nahi denean;

kontuan egin beharreko ordainketak idazkariak baimendu eta sinatu egin behar ditu. Hiru hilabetean behin banku berdinkatzeak ere egin behar dira.

- PFEZ eta BEZa arautzen dituen legedia bete egin behar dira.
- Ekonomia aholkulariaren erantzukizuna argitu egin behar da.

V. 2002ko aurrekontu kitapena

DIRUSARRERAK				
Kapitulua	Hasierako Kreditua	Behin Betiko Kreditua	Onartutako eskubideak	Betetzearen %
1. Zuzeneko zergak	40.718,56	40.718,56	35.387,56	87
2. Zeharkako zergak	4.808,10	4.808,10	1.997,03	42
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	3.876,53	3.876,53	2.972,02	77
4. Transferentzia arruntak	21.935,08	21.935,08	22.121,15	101
5. Ondare dirusarrerak	4.803,62	4.803,62	7.114,63	148
6. Inbertsio errealeen besterentzea	9.015,18	9.015,18	11.319,76	126
7. Kapital transferentziak	23.559,67	23.559,67	5.628,02	24
9. Finantza-pasiboen aldaketak	203.147,30	203.147,30	---	---
Dirusarrerak, guztira	311.864,04	311.864,04	86.540,17	28 %

GASTUAK				
Kapitulua	Hasierako Kreditua	Behin Betiko Kreditua	Onartutako betebeharrak	Betetzearen %
1. Langileen lansariak	16.293,79	16.293,79	12.180,03	75
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	36.617,92	36.617,92	31.019,41	80
3. Interesak	120,20	120,20	-	-
4. Transferentzia arruntak	3.216,61	3.216,61	2.618,85	81
6. Inbertsio errealak	253.615,52	253.615,52	2.872,29	1
Gastuak, guztira	311.864,04	311.864,04	48.690,58	16 %

Iturria: Arruazuko Udala

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, bera izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko abenduaren 12an

Luis Muñoz Garde, Lehendakaria

Eranskina: Ekonomia aholkulariarekin eginiko eragiketen laburpena

Udalaren eta Ekonomia aholkulariaren arteko harremanak aztertu ditugu, 2001etik 2003ko ekainaren 30era. Hona hemen datu nagusiak

2001eko ekitaldia

- Kontabilizaturiko gastua 1.546,71 eurokoa da. 10 hilabeteko gastuari dagokio. Ordainsariak ezberdinak izanagatik, 150,25 euro ingurukoak dira esan daiteke. Azaroan eta abenduan ez dago fakturarik.
- Aurretik kontabilizaturiko gastuek ez dute fakturarik
- 150,25 euroko izendun txeke bat ez dago kontabilizaturik, baina kobratu egin da.
- Ordainketa guztien zenbateko osoa 1.696,95 eurokoa da. Ez da PFEZk agindutako kenketa egin. Ordainketa guztiak banku-agiriaren bidez egin dira aipaturiko txekea izan ezik. Txekearen sinadurak faltsutu egin dira.

2002ko ekitaldia

- Gastu osoa –kontabilizatuta eta ordainduta- 1.953,31 eurokoa izan da, 13 hilabetetan pagatuta. Martxo eta ekainean bi aldiz egin zen ordainketa eta abenduan, aldiz, ez zen ordainketarik egin.
- 1.051,80 euroko gastua justifikatu gabe dago eta fakturarik ere ez dago.
- Udalak ez du PFEZk agindutako kenketa egiten.
- Ordaintzeko modua txekea da. Zortzi txekeetatik zazpi eramailaren txekeak dira eta horietan ustezko faltsuketa bat dago sinaduretan. Ustez faltsututako txeken zenbateko osoa 1.652,8 eurokoa da.

2003ko ekitaldia

- Udalak emaniko informazioaren arabera, ekonomia aholkulariak ez zuen ekainean lanik egin.
- 2003ko ekainaren 30 arte ez zegoen deus kontabilizaturik. Hala ere, bankuen agiriak erakusten dute aholkulariak 1.480,25 euro kobratu zuela (10 bat hilabeteko lansariak lirake). Dena den, ez dago justifikaziorik edo fakturarik eta, beraz, ezin da jakin noizkoak diren ordainduriko zerbitzuak.
- Ordainketa hauek bost txeketan egin ziren: lau izendunak eta bestea eramailaren txekea. Sinadurak faltsuak direla dirudi.

Laburbilduz: ondorengo taulan kontabilizatuko zenbatekoak, fakturarik gabea eta benetan pagatutakoa zehazten ditugu. Kontuan hartzekoa da ez dela inoiz PFEZren kenketarik egin.

Ekitaldia	Kontabilizatutakoa	Ekitaldia Fakturarik edo agiri justifikagarria	Ordainduta	Txeke bidez pagatutakoa (ustezko sinadura faltsuak)	Justifikatu beharreko zenbatekoa
2001	1.546,71	1.546,71	1.696,95	150,25	150,25
2002	1.953,31	1.051,80	1.953,31	1.652,80	300,50
2003 (*)	-	-	1.480,25	1.480,25	728,5
Guztira	3.500,02	2.598,51	5.130,51	3.283,30	1.179,25

(*) ekainaren 30 arte

Aurreko taulari dagokionez, honakoa azpimarratu nahi dugu:

- Azterturiko hiru ekitaldietan hilabeteko ordainsariak berdintsuak dira: 150,25 euro. Hiru hilabeteri dagozkien ordainsariak fakturatu gabe daude.
- Justifikatutako zenbatekoa 901,51 eurokoa da
- Kontabilizatu gabeko ordainsariak, funtsean, 2003koak dira.
- Ordainketen ehuneko 64 ustezko txeke faltsuen bidez pagatu da.
- Kontabilizatu gabeko edo bi aldiz pagatutako ordainketek 1.179,25 euro egiten dute. Dirutza hori justifikatu gabe dago.